



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Bide-segurtasuna

2015ean, Iruñean, 2.257 zirkulazio-istripu gertatu ziren. Horietatik, 142 harrapatze-istripuak izan ziren. Istripu gehienak alboko talka (588) eta ibilgailu aparkatu bat jotzea (457) izan ziren; kalte materialak eragindakoak 1.831 izan ziren, eta 483tan zaurituak izan ziren, eta bi pertsona hilik gertatu ziren. Gainera, 31 lagun larriki zauritu ziren, eta 584, arinki. 142 harrapatze-istripuetatik, 97 erregulaziorik gabeko pasabideetan gertatu ziren, eta 19, pasabidetik kanpo, eta 105 kasutan, zauritu arinak izan ziren. 122 istriputan bizikletak nahasita egon ziren; 177tan, motozikletak, eta 69tan, ziklomotoreak. Istripurik gehien asteazkenetan gertatu ziren, eta gero, astearte, ostiral eta astelehenetan.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Istripuak guztira	3456	3090	3004	2786	2585	2757	2557	2273	1928	2123	2257
Harrapatze-istripuak	201	180	166	165	171	143	153	146	141	144	142

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Hildakoak	2	2	4	3	0	6	3	5	2	1	2
Zauritu larriak	86	70	71	69	61	33	26	22	31	37	31

2015ean, 431 etilometria-kontrol egin ziren, bai arau-haustean, auto-istripuetan eta prebentzio-kontrolatan. Guztira 22.118 proba egin ziren: 21.134 negatiboak izan ziren, eta 984, berriz, positiboak. 983 proba positiboetatik, 792ri administrazio-zehapena ezarri zitzaion.

2015ean, bide-segurtasunaren aurkako 388 delitu izan ziren Iruñean; hau da, 2014an baino 70 gehiago. Gehienak etilometria positiboek eragindakoak, eta epaitegira bideratuak. Zehazki, 276 izan ziren, eta 2014an, berriz, 237. Guztira 60 lagun atxilotu zituzten gidabaimenik gabe gidatzen ari zirelako (2014an, 41), puntuak galdu izanaren ondorioz edo epai judizialez gidabaimenik gabe gelditu izanaren ondorioz, edo gidabaimenik ez izatearen ondorioz. Beste 27 lagun (23, 2014an), arduragabekeriaren ondorioz lesio-delitua egiteagatik.

Horrez gain, 14 delitu egin ziren (8, 2014an) etilometria-kontrola egiteari uko egiteagatik; sei, hirian ausarkeriaz gidatzeagatik; bi, substantzia estupefazianteen eraginpean gidatzeagatik; eta homizidio-delitu bi, arduragabekeriak jokatzaren ondorioz. Berriz ere gaingitu zuen norbaitek hiriko abiadura-muga orduko 60 kilometrotan baino gehiagotan. Holakorik ez zen 2014an gertatu, baina bai behin 2013an, eta bitan, 2011n eta 2012an.

2015ean, Udaltzaingoak 101 droga-proba egin zituen; 99tan emaitza positiboak izan ziren, baina auzitegiatarako bakar bat bideratu zen. Kasu gehienak prebentzio-kontrolatan gertatu ziren (83).

Horrez gain, 2.188 zirkulazio-kontrol egin ziren: abiadura radarrarekin kontrolatzea (1.619), dokumentazioa (862), eskola-garraioa (88), hainbat arau-hauste (202) eta etilometriak (217).

Bestalde, trafiko alorreko talde teknologikoak 376.540 ibilgailu kontrolatu zituen radar mugikorrarekin 1.364 kontrolatan; guztira, 1.130 salaketa jarri ziren, eta pertsona bat atxilotu zuten abiadurarengatik. Gainera, kabina finkoetan kokaturiko radarrek 4 milioi ibilgailu baino gehiago kontrolatu zituzten, eta 2.438ri salaketa jarri zitzaion. Azkenik, *visual car* tresnaren bidez (ibilgailu ofizial batean ezarritako tresna batek ibilgailuetako matrikulak irakurtzen ditu), 205 auto atzeman ziren aseguratik gabe, lapurtutako 3 eta 356 gaizki aparkatuta, salaketa jaso zutenak. Autobus-geltokiaren aurrean, badago aldi baterako aparkatzeko moldatua dagoen eremu bat, bidaiarien joan-etorria errazteko; bada, eremu horretan 715 salaketa jarri ziren; 2014an, aldiz, 804; 2013an, 537; eta 2012an, 502. Gainera, semaforo batzuetan jarritako *argazki-gorri* deritzon sistemarekin, 7.423 irudi tratatu, eta 1.272 salaketa egin ziren.